

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzearen saila

Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren hamargarren aldakuntza

Hau erabaki zuen Udalbatzak 2021eko uztailaren 23an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1. Sektorearen plan partzialaren hamargarren aldakuntza

Erabaki-proposamena

Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren hamargarren aldakuntza egiteko proiektua ikusi da, zeina C. G.d. S. P. eta J. J. L. arkitektoek idatzi baitzuten M-24 lursailaren jabeek eskatuta, eta Basalde BI, SAK aurkeztu Udalaren Erregistroan, 2020ko uztailaren 30ean. Horri dagokionez, alderdi hauek hartu behar dira aintzat:

Zabalganeko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren behin betiko onespena 2004ko azaroaren 8ko ALHAOn argitaratu zen.

Plan partzial hori bederatzi aldiz aldatu da. Bederatzigarren aldakuntzaren behin betiko onespena 2020ko ekainaren 22ko ALHAOn argitaratu zen.

Oraingo proiektuaren helburua da sektorearen antolamendua aldatzea M-24, M-25, M-26 eta M-43 lursailetan, alderdi hauei dagokienez (26.d artikulua):

– Aipatutako lursailetan, sestra gaineko gehieneko sakonera eraikigarria 15 m-ra handitzea (gehienez 1,5 m-ko hegalak aparte) beheko solairuan eta gainerako solairuetan; oraingoa 13 m da (gehienez 1,5 m-ko hegalak aparte).

– B+5 profila M-24, M-25 eta M-26 lursailetan (oraingoa B+4+A da). M-43 lursaillean B+5+A mantenduko da.

– Sestra azpiko solairuaren okupazioa ehuneko 100ekoa izatea aipatutako lursailetan; indarrean dagoena ehuneko 80 da.

Tramitazio hau izan du dosierrak, laburbilduta:

2020ko abenduaren 3an, ingurumen-txosten estrategikoa (ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua) eskatu zen.

2021eko martxoaren 17an, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txosten nahitaezko eta loteslea sartu zen Udal Erregistroan; aldakuntzaren aldekoa da, baldintza hau jarrita: Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen plano eguneratua gehitzea, arau izaeraz.

Martxoaren 23an, Uraren Euskal Agentziaren txosten nahitaezko eta loteslea jaso zen erregistroan, aldakuntzaren aldekoa, baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostena ere.

Apirilaren 13an, Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak txostena egin zuen, zeinak zehazten baitzuen ez zegoela generoaren araberako eragin negatiborik.

2021eko apirilaren 15ean, dokumentuaren beste bertsio bat aurkeztu zen Udalaren Erregistroan, Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen plano eguneratua gehituta; orobat, generoaren ikuspuntutik duen garrantzia justifikatzeko txostena erantsi zen dokumentazio osagarriaren barruan.

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak aldeko txosten teknikoa eman zuelarik, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren hamargarren aldakuntzari, 2021eko apirilaren 23an egindako ohiko bilkuran.

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, orobat, 20 egunez jendaurrean jartzea, aztertu eta alegazioak aurkezterik izan zedin; xedatze-zatia maiatzaren 5eko El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan argitaratu zen, eta maiatzaren 7ko ALHAOn (49. zk.). Aldakuntzaren jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Apirilaren 27an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren apirilaren 26ko ebazpena sartu zen Udalaren Erregistroan, zeinaren bidez aldakuntzaren ingurumen-txosten estrategikoa egiten baita. Horren arabera, agirian planteatutako eta txostenean zehaztutako neurri zuzentzaileak eta iraunkortasunarekin lotutakoak aplikatuz gero, ez da espero aldakuntzan egitekoak diren jarduerak eragin esanguratsurik izatea ingurumenean.

2021eko ekainaren 18an, Uraren Euskal Agentziak egindako aldeko txostena jaso zen erregistroan.

Agiriaren azken bertsioa 2021eko ekainaren 29an aurkeztu zen Udal Erregistroan. Bertan jasotzen dira objektua, ekimena, aurrekariak, proposatutako aldakuntzaren beharra eta egokiera, horren deskribapena, sektorekako eraginak eta eragin soziolinguistikoaren ebaluazioaren beharrik ezaren justifikazioa. Orobat, justifikatuta dago proiektuaren iraunkortasun eta bideragarritasun ekonomikoa. Dokumentazio grafikoa, inpaktu akustikoaren ebaluazioa eta laburpen exekutiboa ere jaso dira. Ingurumen-agiri estrategikoa erantsi da, halaber, ingurumen-txosten estrategikoa adierazitako prebentzio-, babes- eta zuzentze-neurriak jasotzen dituenak.

Hamargarren aldakuntza behin betiko onesteko agiria, beraz, hasieran onetsitako bera da, ingurumen-txosten estrategikoa adierazitakoa erantsita, eta hori ez da funtsezko aldakuntzatzat jotzeko modukoa.

2021eko ekainaren 30ean, azkenik, Plangintzarako Zerbitzuak eta Hirigintza Sailak aldeko txosten teknikoa egin zuten, eta behin betiko onespina proposatu.

Azaldutako aurrekariak kontuan izanik, legezko arau hauek hartu behar dira aintzat:

Borinbizkarra S-1 sektorearen plan partzialaren 19. artikulua ezartzen du xedapen-azterketen erregulazioa; horien bitartez aldatu beharreko parametroen zerrendan ez da agertzen egin nahi den aldakuntza (sestra azpiko okupazioa handitzea zehazki); beraz, oraingo plan partzialaren aldakuntza egin beharra dago.

Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 67. artikulua ildotik, plan partzialek xedatzen dute plan orokorrak edo lurzoru urbanizagarria sektoretan banatzeko dagokion planak mugatzen duen sektorearen antolamendu xehatua. Legearen 68. artikuluan, berriz, plan partzialen edukia arautzen da, baita zein agiritan formalizatu behar den ere.

Aipatutako legearen 95. eta 96. artikuluek jasotzen dituzte plan partzialen tramitazioari eta onespinari buruzkoak, baita 46/2020 Dekretuaren 31. artikulua ere.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldakuntza egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Horrekin lotuta, 46/2020 Dekretuaren 34. artikulua arabera, hirigintza-antolamenduko planen edukia aldatu ahal izango da planak berrikusiz, edo planetan aldakuntzak eginez; 36.1 artikulua eranstean duenez, plangintza berrikusi edo aldatzeko, dekretuan plangintza onesteko aurreikusitako prozedura berari jarraituko zaio, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta edo sinplifikatua barne, ingurumen-ebaluazioari buruzko araudiaren arabera dagokiona.

Behin betiko onespina emateko eskumenari dagokionez, Udaltzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 123.1.i artikuluan — Tokiko Gobernuak Eraberritzeko Neurriari buruzko 57/2003 Legeak gehitua — ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritik, dosieraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak 122.4.a) artikuluan — Tokiko Gobernuak Eraberritzeko Neurriari buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak erantsia — aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkeztzen dio Udaltzari:

Erabakia

1. Behin betiko onestea Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren hamargarren aldakuntza, C. G.d. S. P. eta J. J. L. arkitektoek idatzia.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritik.

Dosierreko dokumentazio teknikoaren esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/s1-10aldak.

Araudiak

26.d) Eraikuntza lreko lurzatiak, altuera ertaineko bloke linealen arabera ordenatuta, paraleloak (kasuren batean bloke bat baino ez da), kontrako lerrokaduretan oinarrituta, lurzati errektangularrak, erdiko zatia beheko solairuan liberatua utzita.

Honako lurzati hauei buruzkoa da: M-14 / M-15 / M-21 / M-22 / M-23 / M-24 / M-25 / M-26 eta M-43. Kasu berezia den M-29 lurzati ere talde horretan sar daiteke.

– Sotoko eraikuntzak lurzatiaren azaleraren ehuneko 80 hartuko du gehienez (M-29, M-24, M-25, M-26 eta M-43 lurzatietan izan ezik, horietan ehuneko 100 baimentzen baita), eta gainerako ehuneko 20a lorategiz hornitu beharko da, garapen ertaineko zuhaitziak landatzeko.

– Eraikuntzaren antolamendua” planoan adierazitako lerrokadurari atxiki beharko zaizkio blokeak, eta gehienez 13 m-ko sakonera izango dute (1,50 m-ko gehieneko hegala aparte utzita). M-24, M-25, M-26 eta M-43 lurzatietan, gehieneko sakonera 15,00 m-koa izango da (1,50 m-ko gehieneko hegala aparte utzita).

– Gehieneko altuera eraikigarriaren gainean trastelekuak jarri ahal izango dira, perimetro osoan 3 metro atzeraemanak, guztira 2,60 metroko altuerarekin eta estalki lauarekin. Atzeraemangune hori eskailera-guneen bidez baino ezin izango da eten, gehienez ere 3,50 m-ko dimentsioan. Erabilera hori bera beheko solairuan koka daiteke, partzelaren barrualdera begira.

– Sestra gaineko eta azpiko eraikigarritasuna, altuera eraikigarrien kopurua eta lurzati bakoitzeko gehieneko etxebizitza kopurua lurzatiaren taula orokorrean zehaztu dira.

- M-24, M-25 eta M-26 lurzatietan, sestra gainean eraiki ahal izango da BS +5 solairu eta M-43 lurzatian, berriz, BS +5+A.
- Plan partzialaren araudian zehaztu ez den guztian, eraikuntzaren eta erabileren baldintzen ondorioetarako erreferentziazko ordenantza Plan Orokorraren 1. mailako OR-4 izango da.
- M-24, M-25, M-26 eta M-43 lurzatietan, faseka eraikitzea beharrezkotzat jotzen bada, lurzati osoaren oinarritzko proiektu bateratua aurkeztu beharko da, eta bolumetriari, materialei eta konposizio-formalizazioari dagokien proposamena jasoko du. Barneko urbanizazioa eta lurzatiaren itxitura ere hartuko ditu barne.
- Lurzatiaren sakonera eraikigarrian, beheko solairuan (fatxadaren kontrakoan), tamaina ertaineko zuhaitzak edo zuhaixkak jarriko dira M-24 eta M-26 lurzatietan, eta M-25 eta M-43 lurzatietan, erdian, eraikinen artean jarriko dira.


Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 30ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

"BORINBIKARRA" 1. SEKTOREAREN PLAN PARTZIALAREN ZORTZIGARREN XEDAPEN-ALDAKETA

2021eko EKAINA
BEHIN BETIKO ONESPENA

Azken baldintzak



Arkitektoak
JOAQUÍN JOVER LAGUARDIA – CRISTINA GOMEZ DE SEGURA PORTERO

or. D_38